



FEVAS Plena inclusión Euskadi, hainbat erakunde biltzen dituen elkartea da.

Adimen urritasuna duten pertsonen eskubideen alde egiten du lan. Eta baita beraien familien eskubideen alde ere.

FEVAS Plena inclusión Euskadik biltzen dituen erakundeak hauek dira: Apdema, Apnabi- Autismo-Bizkaia, Aspace Bizkaia, Aspace Gipuzkoa, Atzegi, Gaude, Gautena, Gorabide, Uliazpi, Fundación Goyeneche de San Sebastián, Fundación Tutelar Atzegi, Fundación Tutelar Usoa y Futubide.

Guztira 13 erakunde dira, eta pertsona asko elkartzen dituzte:



- Adimen urritasuna duten 10.750 pertsona,
- 10.275 familia, 2.050 profesional
- eta 1.272 boluntario.

Erakunde horiek hainbat Zerbitzu eta Programa dituzte:

- Eguneko 57 Zentro
- 5 Zentro Okupazional
- Hezkuntza Bereziko 5 ikastetxe
- Arreta Goiztiarreko 12 Unitate



- 83 Egoitza eta Etxebizitza
- 45 Aisia gune
- Enplegurako 2 Zentro Berezi
- 3 Tutela Zerbitzu
- 4 Autokudeatzaile programa...

FEVASen, adimen urritasuna duten pertsonen eskubideak errespetatzea nahi dugu. Horregatik, honetan egiten dugu lan:

- Legeak aldatzen, urritasuna kontuan izan dezaten.
- Gizartea sentsibilizatzen.
- Profesional onak prestatzen.
- Irakurketa errazeko dokumentuak prestatzen.
- Ikertzen...

**Egunero egiten ditugu ahaleginak, urritasuna duten pertsonak gero eta hobeto bizi daitezen eta gizartean parte har dezaten.**

